

Galarazitako hitzak

edo

Literatura kaiolatua

“Prepovedane parole” (Galarazitako hitzak) izan zen Zarko Petan esloveniar idazleak, kaleratutako liburu ugarien artean, lehenengotariko baten izenburua (1966). Gartzealdi labur baten eraginez idatzi zuen (urte eta erdia) baina eskarmentu hori bizi gabe ezin esan egun Petanen emaitza literario zabala bezain umoretsu ezagutzeko parada izango genukeenik. Maiz adierazi izan du satiraren maisuak espetxeak nola markatu zituen haren idaztanka eta gaiak, ikuspuntua eta jomugak... “Zorretan nago agintearekin nigana izan duen eraginarengatik...jazarri eta bakartu izan ez banindute, sekula ez nukkeen idatziko ”¹.

Ezin uka gutxitutako hizkuntzen literaturen artean zenbait esperientzia komunik badagoela. Honi buruz, esate baterako, Joxe Azurmedi saiogile euskaldunak dioenez “kultur txikiak bai, baina ez inoren sukurtsalak ezta koloniak ere ez direlako, txikiak izaten jakin behar dute inoren menpe ez egoteko herriak independente izango badira ”². Honela gauzatu da, adibidez, euskal nahiz esloveniar literaturen arteko hartu-emanak. Irailean argitaratu zen Ljubijana “Euskal Literaturen Antologia ”³ eta, oraingo honetan, Durangoko Liburu Azokan esloveniar literaturaren ordezkariak Euskal Herrian dago berea ezagutarazten. Biak ala biak, literatura nazionalak diren neurrian, buruz-buruko harremanak lantzeko baina, era berean, bien arteko itzulpen eta argitalpenak ere bideratu ahal izateko.

Aipatu Petan, literatura txiki baten idazle handi honen bizipenak euskal literaturaren historia argitzeko balio lezake zeren, gurean, hala idazkiak nola idazleen berri ematerakoan nekez esan dezakegun ezer giltzapean izatearen esperientzia aipatu gabe, besteak beste, jazarpenez hitz egin ezean, euskal letren bilakaera azaltzea ezinezkoa litzatekeelako.

Linguae Vasconum Primitiae (1545) idatzi zuen gure lehenengo poeta ezagunak, Bernat Etxepare, Bearnen eduki zuten giltzapean arazo politikoengatik⁴, euskal letren pizkundea zaindu zuen Aitzol gartzelatik atera eta fusilatu zuten (hark *su izkillatu*

¹ “Zarko Petan” in **EGAN** . 2006-1/2. 97.or.

² In **Berria** 2006ko azaroaren 24an 42.or.

³ *Etzikoak* . Drustvo slovenskih pisateljev. Ljubljana. 2006.

idatziko balu ere...), gauza bera gertatu zen Lauaxeta gure poeta sinbolistarekin, eta euskara literarioaren proposamen garaikidea egin zuen Koldo Mitxelenarekin, zeinak espetxe frankisten egonaldiak ezagutu zituen filologia ikasten hasi zenean. Euskal eleberrigintza modernoaren aitzindariak (Txillardegi), gartzelatik pasa ondoren, erbestetik idatzi behar izan zuen, eta gure egungo idazle loratuena (Joseba Sarrionandia) batek daki nondik bidaltzen dituen bere testuak Donostiako espetxetik San Fermin egunen batean fikziozkoa zirudien ihesaldia burutu zuenetik...eta ez da bakarra. Giltzapean egon dira Xabier Amuriza, Mario Onaindia edo Mitxel Sarasketa, barruan daude egun Jokin Urain edo Mikel Ibarguren, bakar batzuk aipatzeagatik. Horren dira itsatsiak gartzelaren esperientzia eta euskal literatura ezen “kaiola” entzutearekin batera euskaldun orori espetxea datorkiola burura ⁵.

Azken Gerratean, nazionalista espainiarrak Hego Euskal Herrian gailendu zirelarik, euskal liburuak debekatzear gain, sutara ere bota ohi zituzten. Gure literaturaren aurkako aspaldiko inkisidore prozedura horren berri geratu zaigu, esate baterako, Tolosan edota Donostiako Garibai kaleko duela hirurogeita hamarreko erreketetan zeinetan, euskal literaturarekin batera, euskal hiztegiak ere desagerrarazteko izugarritzko lana hartu zen.

Euskaraz hitz egitea debekatu bazuten ere ez zen haientzat hori funtsezko ardurarik. Frankistentzako kezka zen gatzelera adinako beste kultur hizkuntza egon zitekeen onartu beharra, eta hiztegiak, hain zuzen, horixe bera frogatzen zuten era pragmatikoan, hau da, kultur kontzeptu oro hizkuntza bakoitzaren arabera adierazterik, eta idazterik badagoela, egon.

Hiztegien aurkako gurutzada hura euskal literaturaren kontra, hots, euskal kulturaren aurkako agerpenetariko bat besterik ez zen izan.

Baina Heinrich Heinek zioenez:

“ *Liburuak erretzen duten tokian gizakiak sutara botatzen amaitzen dute* ”⁶.

Hizkuntza debekatua zela eta idatzi zuen bere *Mountain Language* iazko Literatur Nobel Saria Harold Pinter britaniarrak. Antzeppen labur horretan bilduriko sei pertsonaien hitz jarioan funtsezkoena, agian, ez da esaten dutena noizbehinkako isilune desberdinen arabera adierazten zaiguna baizik.

⁴ Urquijo, J, (1933) **RIEV**, 24. 664 or. eta hurrengoak.

⁵ Joxanton Artzeren olerki batek dioenez: “hegoak ebaki baniznion neria izango zen, etzuen aldegingo, bainan horrela etzen txoria izango eta nik, txoria nuen maite”. Kaiola zehazki aipatu ez arren metafora honek, kantuz oso hedatua, adierazi bide du gartzelaren esperientzia euskal kulturaren.

⁶ Báez, F. *Historia universal de la destrucción de libros*. Destino. Barcelona. 2004.

Ezer esaten ez denean, erantzunik gabe geraturiko galderek eraikitzen dute giro dramatikoa eta, halaber, pertsonaien artean gorantz doan tentsioa adierazteko gaitasunak maisuki aurkezten digu egoeraren tragikotasuna.

Istoria honela da, espetxe-bisitara joatean, gartzelara sartzeko zain, ilaran daudenen artean mendiko hizkuntzaz aritzea ez dago baimendurik eta, zain daudenen zelatan, zaindariak ere badaude.

Bisitariak, bada, beraiena den mintzaira beharrean, *Hiriko hizkuntza* erabili ohi dute haien artean...mendiko hizkuntza besterik ezagutzen ez duten emakumezko zaharrek izan ezik.

Mintzatokira sartzera, berriz, goitik behera dabil ziegazaina mendiko mintzaira aditu nahian, izan ere, mendiko hizkuntzaren debekua erabatekoa baita eta, berau entzuterakoan, bisita bertan behera uzteko agindua baitago.

Giltzapeturik daudenak, jakina, menditarrak dira baina ezin izango dute ama eta amonekin mintzatu beraiek besterik ez dakiten hizkuntzaz. Beraz, hala egonean, ilaran, nola elkartzeko geletan, isiluneak ohi dira nagusi. Ezer ez esatearekin batera, giro dramatikoa handituz doa hizpidera eramaten denak besterik erakutsi nahi ez izan arren.

–“nor etor izanen ote zait! Bo, berdin dio nor letorkidakeen, jadanik ikasiak ditut, buruz ikasiak, etortzen zaizkidanentzako agurrak, irriak eta agurrak.

*Arreba edo anaia baletor zigarroa piztuko dut lehenik, eta gero zer moduz dabilen galdetu. Berak ere galdera berdina egingen dit, eta biok batera, erantzun berdina emanen diogu elkarren galdera leloari. Gero irrifarra. Inertziatz egiten den betiko irrifar irrifartsua; oso beharrezkoa da irrifar hori, beharrezkoa eta ekidin ezina ere bai. Ederra litzateke lehen agurrari irrifar batekin ez erantzutea!”*⁷

Une jakin batetik aurrera, ordea, betiko agindua, inolako logikarik gabe, aldatu egiten da.

Aginduren aldaketari buruz ez da azalpenik ematen. Arrazoirik gabe, aurreko debekuan bezala, bai presoei baita bisitariari ere, haien hizkuntza erabiltzeko eskubidea itzuli egiten zaie.

Beranduegi, halere.

Baimena eta guztiz, mendiko ama-amonak hitzik esan gabe segi egingo dute.

⁷ **Ateramine** tik ateratako testua. **Ateramine** Euskal Preso Politikoen Kolektiboak kaleratzen duen literatur aldizkaria da.

Mendiko hizkuntza deitu izan zaio euskarari Nafarroan. Euskal Herriko mendietatik urrutiko gazteleraren gartzeletara doazenek euskara bizia eta kultur elikagaia ere eraman arren, ezin dute zoo-ilogiko haien hesiak gainditu.

Beraz, aspaldiko pasadizoak, ezaguna bada ere, esangura ez ohi du galdu. Espainiarrak, Evo Moralesen aurreko itsasgabeturiko Bolivian marina ministroa zergatik ote zuten galdetuta, Espainian Justizia ministroa zergatik ote zegoen ihardetsi ziotenaren asaldurarena da.

Espainiako ustezko Justiziak euskal presoak betirako kartzelaldian iraunarazteko “bideak eraikiko” dituela adierazi zuen oraindik orain eta Espainian ez da inor horren aurka azaldu, esandakoa ozena izan arren.

Ez dakit Koldo Izagirrek *Metxa* pertsonaiari euskal literaturaren mundura sarrera eman zionean (Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak (1991, Elkar) fikziotik at ezagututako norbait izan ote zuen buruan, edo aitzitik, berak idatzitakoak preso egoskor benetakoren bat sortzeko behar adinako gaitasunik izan ote zuen baina, Iñaki De Juana Chaosen gartzelaldi bortxatuak, adibidez, haren testuarekin bat egiten duela ez dago dudarik.

“ *Kartzela: gorputzak usteldu eta espirituak herdoiltzeko sortutako barnetegiak. Halakotik ihes egitea omen presoaren zeregin nagusia. Nobela honetako protagonistak, ordea, alderantzizko ihesa egiten du...*” irakur daiteke Izagirrek kaleratutako eleberriaren kontrazalean. Fikzioaren kontrazalean, kaleratu gabe, irauten kondenaturik dagoen De Juana Chaosek, bada, Donostiako karriketan egon beharrean giltzapean daukate argitaraturiko bi iritzi artikulua direla medio. Algeciraseko presondegitik irtetear zegoela, berez, “presoaren zeregin nagusia” burutzear zuela, bere aburuak idazle gisa kaleratzeagatik ez dago bera kartzelaz kanpo. Idazle modura plazaratutakoa hartu dute oraingo honetan aitzakia preso izaten segitzera behartzeko. Ez du De Juanak “presoaren zeregin nagusia” bete, idazle izatea nahiago izan du, eta idazteagatik, eta argitaratzeagatik, daukate preso eta itzalean.

Euskal Idazleen Elkarteko burua izan den Tere Irastortza poetak duela gutxi idatzi zuen: “ez dugu galdetu behar idazlea zein den bakoitza idazle noiz bihurtzen den baizik...”

Eta nago, Iñaki De Juanak kartzelan giltzapeturik iraunarazten duten bi artikulua haiengatik dugula idazle. Nahiz eta aurretik, besteak beste, bi nobelen egilea izan (“*Egunak*” – bai gazteleraz baita grekeraz ere argitaratuta, eta “*La senda del abismo*”) ez dela idazlea, soilik, eleberriak idatzi dituelako, izkiratzeagatik preso segitzearen arriskuari muzin egin diolako baizik.

Moral erlijiosoari kritiko-arrazionala kontrajarri zion Emmanuel Kantek modernitatearen hastapenetan. Bere ustetan ez ditugu iritziak, ezta jarrerak ere, haiek eragin litzatekeen ondorioetan oinarritu behar. Agindu hipotetikoaren arabera eraikitako moralak ekintzaren emaitzari begiratu arren, morala kritikoak, besteak ez bezala, toki eta egoera guztietan berdin jokatzeko eskatuko du, horrek ekar lezakeen ondorio on edo txarrik aintzakotzat hartu gabe. Hamabi urte eta zazpi hilabeteko beste gartzealdi batera zigortu dute Iñaki aipatu iritzi artikulu pare batengatik giltzapean dagoeneko hogeita bat urte bete baditu ere.

Jokamolde honetako adibidea izan zen, esate baterako, Tomas Moro, zeinak Ingalaterrako Enrike VIII.aren desioei kasu egin beharrean nahiago izan zuen hil haien aurrean makurtzea baino. Eta mehatxuen aitzinean konkortu beharrean iritzi finkoari atxikitzeagatik kondenatu zuten. Handik aurrera, *Utopiaren* idazlea, “Betirako giza ona” bihurtu zen eta Fred Zinemanek filmaturiko “*A man for all seasons*” hartan portaera moral hori islaturik geratu zen betiko, non, idazlea, pertsona, preso eta duintasun etika-politikoaren giza jokamolde berean agertarazten zaizkigun.

Idazle euskaldunok ezagutu arren, Iñaki De Juanaren kasua idazle guztion kausa ere beharko luke izan. Areago, laurogeita bi eguneko gose greba egin ondoren bere egoera ezagutarazteko berriro bide horri ekin behar izan dionean. Bere iritziak kaleratzeagatik kalean egotearen ordezkari preso dagoenak badu zer esaterik eta zer erakusterik.

Baina, orain honetan, gainera, berarekin eramandako jukutria mendeku pertsonala besterik ez zela konturatzeko sasoi etorri da. Ez da, beraz, ezertan pertsonalizatu behar jakiteko, behar bezalako erantzunik ezean, laster batean jurisprudenzia izango dela orain “egilearen arabeko zuzenbide” gisa erakutsi berri duguten hura, hau da, zigorraren tamaina idazlearen baitan juzkatu beharra. Eta jakina, jurisprudenzia agintzen duen tokian ez dago giza eskubiderik ezta, noski, are gutxiago, adierazpen askatasunik.

Espainiako monarkiaren ministroak (ustez, justiziakoa...) aspaldiko Kantek kanta honetaz ez omen daki ezer. Agian, ez jakiteagatik, ez du jakingo ezta sozialista denik ere, zeren portaera honekin sozialistek beraiek, zuzenbidean zein eskubideetan, zuzentzen nahiz politikan, aldarrikaturiko “berdintasunaren” izaera ari da desegiten eta, aldiz, jatorria edo iritzi edota jarreraren arabera gizartea mailakatu bezain diskriminatzailea eraikitzen.

“ kanpora begira, espetxe enea,
irribarreak aditzen ditut
eta gozatu bakea
baina, nahiz eta presoan egon, giltzapean,
geurea izango da libertatea,
kalekoa isiltzen bada,
presoak hitz egiten duenean ”⁸

idatzi zuen Alfonso Sastrek frankismoaren urte ilunetan.
Sasoi honetan, Iñaki De Juanaren egoerak berrestu egiten du ikusezin bezain gutxituak
diren idazlearen jazarpena eta, horrekin, debekuaren gainetik eta zigorraz harago,
adierazpen askatasunaren aldarria begibistan ezartzen digu berriz ere.

Fito Rodriguez
(Euskal Idazle Elkartearen lehendakaria)

¹ Hondarribian bizi den idazleak honela idatzi zuen gazteleraz:
“ Mirando al exterior, oh prisión mía,
oigo risas que llegan a mis huesos:
hay quien se piensa libre todavía.
Pero a pesar de todos los procesos
la noche es enemiga, nuestro el día:
nosotros somos libres y ellos presos”
in Balcells J.M. *Poesía castellana de la cárcel*. Dirosa. Barcelona. 1976.

*2006 Abenduaren 7 an, Detour Zineman eskainitako hitzaldia, Associazione Culturale
Euskara eta UPTER Euskal Saila antolatutako Eromako Euskal Astearen barru.*
www.euskara.it
